

# Zenbateraino izan behar dira txikiak nekazari txikiak?



**GORKA MENENDEZ**  
MILITANTEA, NEKAZARIA  
ETA BOTANIKOA

**G**aur egungo ezker mugimendua-ren zati handi batek, intuitiboki bada ere, eskala txikiko nekazaritza aldarrikatzen du zalantza askorik izan gabe. Hala ere, txikitetasunaren aldarrikapen horrek baditu bere kontraesanak: tamaina txikiko ustiategi batek, definizioz, ezingo du elikagai askorik ekoiztu. Eta hori garrantzitsua da? Bada, zentzu batean, bai. Jendarte batek izan dezakeen konplexutasun maila ekoizten dituen soberakinen arabera izango da. Esate baterako, ekoizle bakar batek mila pertsonarentzat adina elikagai sor baditzake, esan nahi du sistema horretan 1.000 biztanletik bat bakarrik arduratu beharko dela elikagaiak ekoizteaz.

Gainerakoen bizitza-denbora sozialki beharrezkoak diren bestelako jarduerak egiteko aske geratuko da: erizainak, musikariak, irakasleak, garbitzaileak, ingeniariak, artisauak... Lanaren banaketa sozialerako eskala 1/1.000 proportzioan eman ahalko litzateke kasu horretan. Elikagaien ekoizpenean soberakinik ez balego, ordea, jendarteko partaide guztiek eskaini beharko liokete elikagaien ekoizpenari tarte bat. Kon-

**Ekoizpena interes kolektiboen arabera antolatuko balitz, noraino eramango genituzke ustiategiaren tamaina eta ekoizpen gaitasuna?**

plexutasun maila oso baxuko jendarte izango litzateke.

Kontua da ustiategiaren tamainak lotura estua duela sor dezakeen soberakin mailarekin: zenbat eta handiago izan, hainbat gehiago teknifikatu eta mekanizatu daiteke. Eta horrek posible egiten du pertsonako ekoizten den elikagai kantitatea handitzea. Hala ere, ekoizpen kuantitatiboaren handitze hori ez da debalde gertatzen. Teknifikazioak gora egin ahala, ekoizleak zuzenean kontrola-

tzen ez dituen prozesuekiko dependentsia handituz joango da: autonomia galdu eta bere alienazio eta mendekotasun maila handituko dira. Era berean, eskala handitzearekin ekoizpen prozesuak sortzen dituen kalte ekologikoak handitzen dira, paisaia eta ekosistemen eraldaketa ere eskala handiagoan egiten delako.

Gaur egun, kapitalismoan, ustiategiaren tamaina merkatuak ezartzen du: eskala eta teknifikazio maila bategatik behera elikagaien ekoizpena ez da errentagarria eta inork ez du profesionalki eskala horretan ekoizten. Baina horrela ez balitz, eta ekoizpena interes kolektiboen arabera antolatuko balitz, noraino eramango genituzke ustiategiaren tamaina eta ekoizpen gaitasuna? Zein puntutan ebatziko genuke eskala-teknifikazio-produktibitate-ingurugiro eragina-autonomia faktoreen arteko tentsioa?

Nire ustez, bitarteko kolektibizazioa eta agroekologiaren printzipioak gidalerrotzat hartuta, ekoizpen eskalaren handitzea entsegu esparru izan beharko litzateke, plano teorikoan zein praktikoan. ●



**aleka**

**EUSKAL HERRIKO  
HAZI EKOLOGIKOAK**

Leunda Berri Baserria  
Beizama, Gipuzkoa



**EGIN ZURE  
HAZI ESKAERA!**

[www.aleka.eus](http://www.aleka.eus)

- . BASERRITARRAK SAREAN
- . AGROEKOLOGIA
- . BIOANIZTASUNA
- . BERTAKO EKOIZPENA